

EDUKIAK: Testu liburua Geografia eta Historia 3. Vicens Vives

1. Espazio fisikoa: natura-ingurunea- erliebea, ibaiak, ozeanoak eta paisaia naturalak. Europako, Espainiako eta Nafarroako paisaia naturalak
1. Gizarteen antolaketa politikoak: estatuak: elementuak, funtzioak, estatuen arteko harremanak. Europako estatuak, EB eta Espainia.
2. Gizarteen antolaketa ekonomikoa. Ekonomia globalizatua.
3. Sektore ekonomikoa: lehen sektorea, bigarren sektorea eta hirugarren sektorea edo zerbitzuen sektorea. EBn eta Espainian.
4. Gizarteen arteko desberdintasunak. Aniztasuna
5. XVI Mendea: Aurkikuntza geografikoak. Aldaketa ekonomikoa, sozialak eta politikoak. Errenazimendua. Espainiako inperioaren goraldia.
6. XVII. Mendea Europan eta Espainian. Barrokoa (Europan, Espainian eta Nafarroan).

KALIFIKAZIOA:

Kalifikazioetan kontzeptu, prozedura eta jarrerako edukiak neurtuko ditugu. Gizarte zientziaren edukiak euskaraz adierazteko gaitasuna, zein idatzikoa zein ahozkoa, kontuan hartuko ditugu kalifikazioak jartzerakoan.

Azkenik, ebaluazio burutzeko, froga objektiboak jartzeaz aparte, lanak -klase barrukoak zein kanpokoak-, banakako lanak zein taldekoak, lan-koadernoak, eta abar hartuko dira kontuan. Hauek izango dira ebaluazio gauzatzeko erabiliko ditugun tresnak. Hau guztiarekin ebaluatuko dugu.

Kalifikazioa jartzeko orduan ondoko banaketa egingo dugu ziklo eta mailarena arabera:

DBH bigarren zikloan : Azterketak---%70 Aipatutako lana eta jarrera gehenez,...% 30. Jarrera oso desegokia bada (E) automatikoki suspenditurik egonen da ikaslea.

BERRESKURAPENEN PROZEDURAK ETA EZ OHIKO FROGA

Ebaluaketa guztiek, berreskuratzeko azterketa izango dute. Berreskurapen bakoitza, hurrengo ebaluazioaren hasieran saiatuko gara egiten, hala ere horretarako kontutan hartuko dugu ikasleen eginbeharrak. NAHIKOTASUN FROGA egingo zaie ebaluazio guztiak gainditu ez dutenei, irakasgaia gainditzeko nahikotasun froga hori gainditu behar dute. Nahikotasun froga horretan ikasleak gainditu gabe duen ebaluazioaren berreskurapena egin beharko du bakarrik.

3. ebaluazioaren berreskurapena araudiaren arabera egingo da.

Azkeneko aukera EZ OHIKO froga izanen da. Ez ohiko froga kurtso bukaeran egingo da eta ikasturte osoaren edukiak sartuko dira.

Berreskurapen frogak, oinarritzko eta gutxiengo edukietan oinarrituko dira.

